

Musika

Ortots: euskal heavyaren zigilua Metalaren orroa ez da isildu

Euskal Herrian metal musika osasuntsu dago, eta aurkakoa dioen edonork *Herriko Burdina* webzinea bisitatu ez duelako da; edo bestela ez du *Burdinola* irratsaioa entzun. Ortots diskoetxearen inguruan ere ezer jakin gabe, nekez esan daiteke gurean heavyak lekuri ez duenik. Orain gainera Eusko Metal Label egitasmo berria jarri da martxan eszena hau bultzatzeko asmoz.



LANDER MUÑAGORRI

Argazkia: Maddi Soroa

ORTZI ZERUKO JAINKOAREN ahotsa, horixe da Ortots. Trumoi, hain juxtu. Eta trumoi horren fruitu den metal diskoetxe euskaldun honek egitasmo berri bat jarri du martxan: Eusko Metal Label proiektua. Argitaletxe gabeko euskal metal talde gazteen ekoizpenak babestea du helburu. Ortots diskoetxearen filosofiari jarraiki, SGAE erakundetik kanpoko argitalpen independenteak babestuko dira soilik; diskook Ortotsen webgunetik (www.mundurat.net/ortots) eskuratu ahal izango dira. Euskal Herrian metala hilda dagoela diotenei, ezetz, gurean rock gogorrak oraindik lekua duela baieztatzen lagunduko duen proiektua izango da. “Gurean heavyaren panorama ez da soilik betiko lau taldeen artean banatzen; kalitatea soberan daukaten hamaika talde gazte daude” dio Inaxio Esnaola diskoetxearen sortzaileak; baina taldeok hedabideek eta diskoetxeek sostengatzen ez dituzten bitartean bigarren planoan

Inaxio Esnaola Ortots zigiluaren arduradunak urtetan lan egin du euskal eszena metalikoa bultzateko. *Burdinola* irratsaioa eta *Herriko Burdina* webzinea dira lan horren lekuko.

geratuko dira. Hemen da ordea diskoetxe donostiarra eta bere Eusko Metal Label egitasmoa, egoera hankaz gora jartzeko intentzioarekin.

2006an Ortots sortu zenetik lan oparoa egin dute, lau disko eta bilduma bat plazaratuz; halere proiektu berri honekin beste planteamendu bati eman diote bide. Abenduan bilduma bat argitaratuko da, proiektuaren erakusleia, promozio lanak egiteko ere balioko duena. Hamabost musika talde bilduko ditu. Eusko Metal Label hainbat talderen erreferentziak eskainiko baditu ere, diskoa da proiektuaren zati eztabaiaezina.

Argitalpenaren espiritu heavya islatzeko datu bat: 666 ale banatuko dira, 3 euroren truke. Parte hartuko duen talde bakoitzak bilduma bere kasa saltzeko aukera izango du; “taldeek nahi duten disko kopurua erosiko dute salmenta prezioa baino merkeago, eta jasoko dituzten irabaziak eurentzako izango dira” azaldu du Esnaolak. Aurreko bildumarekin egin zen bezala, gastuak eta irabaziak

taldeen eta diskoetxearen artean banatuko dituzte. Kooperatiba gisako planteamendu honekin musikariek, diskoetxeak eta Eusko Metal Label egitasmoak, denek irabaziko dute; bai ekonomikoki, bai promozionalki.

Hiruko metalikoa

Metala zaletasuna izan da beti Inaxio Esnaolarentzat, eta *bobby* hori aitzakia hartuta, euskal panorama musikaren alde lan handia egin du urtetan. Hasierako pausoez ongi oroitzuten da: “Fanzineek Interneterako urratsa eman zuten garaian, Espainian metalaren inguruko webzine batzuk bazeuden; baina euskal heavyaren ingurukorik bat ere ez”. Saiakera ugari egin zituen ildo horretan, baina denetan erratu zen. “Gerora *Burdinola* irratsaioan hasi nintzen lanean; *Herriko Burdinak* izeneko atala neraman, eta euskal metalaren aktualitatea eskaintzen nuen”. Esnaolak buruan zuen webzinearen izaera ere halakoa zenez, izen bera erabili zuen bere sareko proiekturako: *Herriko Burdina* (www.herriko-

burdina.net). Gune horrek hainbat berri eskaintzeaz gain, diskoen kritikak, erreporta-jeak eta taldeen inguruko informazioa ematen dizkio irakurleari.

Diskoetxea berriz, webzinearen eskutik etorri zen. "Halako batean, *Herriko Burdina*-ren foroan, pertsona batek hainbat talderekin bilduma egitea proposatu zuen". Esan eta egin. "Medio posibleak ikusi nituen, eta aurrera egitea erabaki nuen. Garai haietan diskoetxe independente pila sortzen ari zen, AntiSGAE eta AntiCopyRight-aren booma zen; Euskal Herrian baziren erreferentzia-tzat hartzeko adibideak, Musik-Herria kasu". Filosofia horren hedapenarengatik, eta independente izateak eskaintzen duen erosotasunarengatik, lan egiteko modu horren aldeko apustua egin zen, irabazi asmoz gabeko diskoetxea sortuz.

Ortotsen sorrerarekin Esnaolak irratsaio, webgune eta diskoetxearen hiruko metalikoa burutu zuen. Gogotsu egiten duen lana dela aitortu duen arren, gogorra ere egiten omen zaio, proiektu hauek guztiak askotan bakarrik eraman behar izan baititu aurrera. Hori dela eta, Ortotsek urtean lan gutxi argitaratzen ditu, bakoitzaren banaketak eta promozioak lan asko eskatzen baitu. "Beste

hainbat diskoetxe independentek akats hori egiten dute, disko ugari argitaratu, baina behar bezalako promoziorik egin gabe". Ortotsek taldeei eskaintzen dien laguntza berriz promozio lan horretan oinarritzen da, "ezin izango baitiegu lan osoa ordaindu". Diskoetxea autoekoizpen lagundua da. Elkarlana eta babesa dira Ortots egokien definitzen dituzten bi hitzak.


Ekaitzaren parte izateko, halere, hainbat baldintza bete behar dira, Ortotsen filosofiak aurrera egingo badu. Rock gogorra edo metal alorra jorratzen duten taldeak izatea ezinbestekoa da; "egiten dutenak interesgarria izan behar du, ekarpen bat egin behar dio musikari; metal esperimentala izan ala metal klasikoa, ondo egina izan behar du" zehaztu du Esnaolak. Kultura librearen aldeko musikariak eta euskaldunak ere izan beharko dute, "eremuak zabaltzeko proposamenak egin dizkidaten arren". Baina Ortots euskal musika bultzatzeko jaio zen, eta hala izaten jarraituko duela ziurtatu du bere sortzaileak.

Euskal metalaren erauntsia oraindik ez da atertu, eta ez dirudi akaberarik izango duenik; gogoko duena busti dadila zaparradaren pean. Entzun nahi ez duenak aterkia etxetik ateratzea beste erremediorik ez du izango. ■

Kultura librearen alde egotea ezinbesteko baldintza da Ortots metal zigiluarekin lanak argitaratzeko

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneako kide ere izango zara



Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloiez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-**

Aukeratu ongietorri oparia



"Kirolaz badakit"
mahai-jolasa



"888 txiste"
liburua



"Txoriak txori"
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Iparr Euskal Herrian

